



PRENTSA OHARRA

56 erakunderen atxikimenduarekin

Alarma jo dute zurrumurru arrazista eta xenofoboek kontra Arrazakeriaren XV. Martxan

Gaur goizean Arrazakeria eta Xenofobiaren kontrako XV. Martxak Trintxerpe-Donostiako Bulevarra ibilbidea egin du. Donostiako Askatasunaren hiribidean dagoen Nazioarteko Erlojutegian egunero jotzen duten alarmak ere arrazakeria eta xenofobiaren aurkako aldarrikapenekin bat egin du eta aurten Martxa bulevarrean sartzen ari zenean bere soinua entzunarazi du, ordu bata inguruan. Ibilbidea egin duten zortziehun lagun inguruk ere beren alarmak jo dituzte etorkinen aurka erabiltzen ditugun zurrumurruak, aurreiritziak eta estereotipoak sinbolikoki isilarazi asmoz. Ehundaka parte-hartzaileen artean, aurten eta hirugarren urtez, Martxa ezagutzera emateko komunikazio kanpaina egin duten Usandizagako ikasleak ere bazeuden.

‘Antizurrumurru Martxa. Etorkinen aurkako aurreiritzi eta estereotipoen kontra’ lelopean, antolatzaile eta kolaboratzaileek agerian jarri eta azpimarratu nahi izan dute arazo larria dela bertako “aurreiritziz betetako populazioaren parte handi batek” etorkinen gain gizarteko arazoaren erantzukizuna leporatzeko duen joera, bereziki krisialdi egoera honetan, “etorkinak krisiaren petxero bilakatuz”.

Haatik, eta SOS Arrazakeriako Agustín Unzurrunzagak adierazi duenez, “lan prekarioa, soldata bajua, enpleguaren seguritate eza, ezkutuko ekonomia, alokairua edo hipoteka ordaindu ahal izateko arazoak, eskubide eta gizarte laguntzetan eginiko murrizketak Gipuzkoa, Euskadin eta Estatuan milaka lagunek pairatzen dituzten arazoak dira, bertako zein etorkinek”.

Hala ere, jendartean bertakoen artean hainbat aurreiritzi errotzen joan dira eta Martxaren manifestuaren arabera “gizartearen egoera errealean pertzepzioa itxuraldatzen dute eta ezaugarri ezkorrak leporatzen dizkie, aurretik ‘gu’gatik kanpo utzi ditugunei”. Horrela eta froga praktikoa orok eta errealitatearen azterketa serioak behera botatzen dituenaren kontra, etorkinak integratzen ez direnaren ideia zabaltzen da, gizarte laguntza gehiegi jasotzen dituztela, ez dagozkien lanpostuak betetzen dituztela edo bere kulturagatik delitu gehiago egiten dituztela”.

Unzurrunzagak azpimarratu du “immigrazioa hemen dago eta gizarteko parte” dela. “Gizarteko egituraren beste zati bat da. Etorkin askok erresidentziari esker nazionalitatea lortu dute eta beste askok, Gipuzkoan bizi diren %70, behin betiko erresidentzia baimenak edo komunitarioen senide izateagatik baimenak dituzte eta beraz, gure artean dauden eta etorkizunean etorriko direnak kontutan izanik gizartea birpentsatu, sortu eta zuzendu beharra” dagoela gaineratu du. Unzurrunzagak aldarrikatu du “Hiritartasun osoa, inklusiboa eta bizitza politiko eta sozialean betebeharrak eta eskubide berberetan oinarriturik. Eta norabide horretan ez daukate tokirik aurreiritzi eta estereotipo iraingarri eta ezkorrek”.